

Jangela zerbitzua 25-26

Familia agurgarria, 25-26 ikasturterako jangela zerbitzua antolatzen hasiak gara.

Dagoeneko jangela zerbitzua erabiltzen duzuenontzat: kontrakorik adierazi ezean, bazkaltiar bakoitzari aurtengo ikasturteko jangela-egoera bere horretan mantenduko zaio jangelako aplikazioan (baja eman duenak bajaran jarraituko du). Norbaitek aldaketaren bat egin nahiko balu (baja, alta edo egun aldaketa) arduradunari helarazi beharko zaio. 25-26 ikasturterako aldaketak egiteko epea honako hauek izango dira:

- Iraileko aldaketak: **2025ko irailak 2 azken eguna.**
- Urria-maiatzeko aldaketak: **2025ko irailak 9 azken eguna.**

Berrientzat, baja eman zenutenentzat edo jangela zerbitzua lehen aldiz erabili nahi duzuenontzat:

Jangela zerbitzuan IZENA EMATEKO (sakatu hemen)

- Izena-emateko epea: **2025ko ekainak 30 azken eguna.**
- Garrantzitsua da izen-ematea epe barruan egitea lekua ziurtatzeko.
- Eskararik egiten ez bada, zerbitzua erabiliko ez duzuela ulertuko da.
- Edozein zalantza izanez gero, arduradunari idatzi.

Azkenik, zuekin ondorengo informazioa ere partekatu nahi dugu:

Jangela eremu hezitzailea da:

- Janariaren inguruko aurreiritziak saihesteko, ikasleei janaria probatzera animatzen zaie.
- Txandaka, ikasle arduradunek janaria zerbitzatzeko, mahaia jasotzen eta garbitzen lagundu behar dute eta gainontzekoak, jangelan dauden bitartean, eserita egon behar dira, besteen lana arintze aldera.
- Ikasleen hutsegiteak egunero sartzen dira INIKAn familiek jarraipen zuzena egin ahal izan dezazuen.

Eskerrik asko jangela zerbitzua erabiltzeagatik eta uda on!

Belén Merino (jangelaren arduraduna)
jangela@hernanibhi.com - 943 899 511